



# Langai

1989ko ABENDUA

LANGILE ABERTZALEEN BATZORDEAK

ZENB. 6

## Batasun Nazionala Ponentzia

## Negoiazio Kolektiboa

Zbkia

TXT 10008



DOKUMENTAZIO  
ZENTROA

# PONENTZIAREN GIOIA

## 1- SINDIKAL ETA EKONOMI ARLOKO TESTUINGURUARI BURUZ.

### 1.1- Lehentasunezko Plataforma Sindikala

A.- Zergatiak.

B- Mamiaren azterketa orokorra

### 1.2.- Testuinguru ekonomikoa.

## 2- EGOERA HONERI DAGOKION GURE JARRERA

### 2.1- LAB eta Interbentzio sozio-ekonomikoa

A- Sarrera.

B- Gure interbentzioaren ezaugarriak.

D- Sindikalismo erreformista, LPS eta LAB.

### 2.2- Egungo egoerari alternatiba orokorra .

A- Egungo markuan.

B- Negoziazio Politikoaren markuan.

### 2.3- Lan plangintza.

A- Gure helburua: borroka ideologikoa.

B- Gure interbentzioaren ardatzak.

D- Barruko eta kanpoko lana.

E- Ardura daukaten estrukturak.

F- Faseak.

## 3- 1990 GARRENERAKO NEGOZIAZIO KOLEKTIBOA.

### 3.1- 1.989.ko Negoziazio Kolektiboaren balantzea.

### 3.2- LPS eta Negoziazio Kolektiboa.

### 3.3- Negoziazio Kolektiboaren markoak.

### 3.4. 1.990.ko plataformaren ardatzak.

## SARRERA

Lehentasunezko Plataforma Sindikala, hartu daitezken neurri ekonomikoak, negoziazio kolektiboa eta bertan dauzkagun hauteskunde sindikalak, izango dira datozen hilabeteetan sindikal mailan eraginen duten puntuenik garrantzitsuenak.

### **BATASUN NAZIONAL HONETAN LEHENENGO HIRU PUENTUEKIKO GURE JARRERA HAUSNARTUKO DUGU. ETA OTSAILA EDO MARTXOAN OSPATUKO DUGUN BATASUN NAZIONALEAN HAUTESKUNDE SINDIKALEI BAKARRIK EMANGO DIEGU.**

Nahiz eta hauteskunde sindikalen puntua ez oraingo honetan ukitu, ez genezake "aparteko gai" bezala hartu, guztiak loturik bait daude. Gai hauen aurrean hartu behartako jarrerak, alde batetik gure "imagina" eta bestetik langileriaren barruan sartu behar dugun mezua, nolabait itxuratuko duela argi eduki behar dugu. Honek ez du esan nahi hauteskunde sindikalak datozela ta guk geure ekintza sindikala eta erreibindikatiboa aldatu behar ditugunik, ezta gutxiagorik ere, egun, inoiz baino gehiago gaude behartuak gure mezua argi eta garbi eratzera, era berean ekintza eta betiko jarrerak; guzti honekin eta aukerarik galdu gabe gure nortasuna indarrez, sendotasunez aurkeztuz euskal langileriari. Ezadostasun sozialak bideratzeko, eta bizi eta lan baldintzak hobetuarren alternatiba erreal eta zehatzak emateko gai garela erakutsiko diogu langileriari, honelaxe ba behirtu gara buru bakarrean.

Hausnarketa guzti hoiek egi bihurtzen ditugun neurrian, euskal langileriak, berak, jakinen du bereizten nork bilatzen dizkion egitazko irtenbideak, eta nork, marko juridiko honeri baietza emanez bilatzen dituen ezinezko "giza jiroak", "jiro ekonomikoak", "jiro...".

Gure estrukturak dituzten ohizko bideak erabiliz lortuko dugu datorren Batasun Nazionalean azertu behartako gaiei dagokien eztabaidaren ondotik, irtenbiderik zuzenena ematea.

Zuei eskatzen dizuegu eztabaidari sarrera emanarren aurkeztu dugun ponentzi honeri zuen aportazioak ager ditzazuten guztion artean lor dezagun lan osatu batekin burutzea prozesu hau. Une hau ez da hutsuneak, salatzeo bakarrik, lehen esan dugun bezala, hutsuneak haztatuz gero egokitzen botatzen dituzuen aportazioekin betetzera saiatu behar dugu.

# 1- SINDIKAL ETA EKONOMI ARLOKO TESTUINGURUARI BURUZ

## 1.1.- LEHENTASUNEZKO PLATAFORMA SINDIKALA

### A.- Zergatiak:

UGT-CCOO-ELAK, Abenduaren 14arekin "estrategi sindikala aldaketari" bultzada txiki eman zioten. Bigarren bultzada udazken honetan emateko asmoa zuten -hauteskunde orokorrak eragotzi diotelarik-LPSren hildotik. Garrantzitsu eta beharrezkoa da hausnartzea nondik nora datorren "aldaketa" hori, edota zer zegoen Abenduaren 14aren atzean eta orain LPS.

Itxurazko aldaketa horrek UGT-CCOO-ELAK azkeneko legislatura honetako estrategiarekin topo egiten du, prozesu hori gora behera haundiekin eman dute mundu guztian ekonomia, kultura eta politika krisia sakon batean dagoelarik.

Transizio honetan ez burutzea inolako hausturarik zera esan nahi du, aurreko regimena bultzatu zuten indar ekonomiko eta sozialak zituzten interesak eta tresna eragileak ukitu ere ez dituztela egin. Botere faktikoen transizio honek beraien interesak eta batez ere ekonomi arloan zuten eragina, arriskuan jartzen zituela uste zuten neurrian, transizio hau arriskutsua aurkezten zen. Guzti honen ondorio bezala uler genezake aukeratutako strategi sindikala, lehentasunezko ardatza izan dutelarik "arriskuak gutxitzea" batetik, eta botere faktikoen suertatu zitezkeen enfrontamenduak kontrolatu eta gutxitu, bestetik.

Erakunde hauek uste zuten krisi ekonomikoak balantzan jartzen zuela transizio politikoa, botere faktikoen aldaketik atzerakada arriskua haunditzerakoan; pentsatzen zuten langileria ez zegoela aldaketa sakonak bultzatzeko prest: ohartarazi zuten benetako sozialismoari aurre egiteko alternatiben krisiaz; eta bukatzeko, langile mugimenduan ordu arte izan ez zuten protagonismoa errazten zuten erlazio sistema berria eraikitzeko aukera ikusi zuten.

Europa guztia zegoen krisi ekonomikoan, eta botere ekonomikoak erakunde politiko eta sindikatuarekin "elkarulertze" batera iritxi nahi zuten: 1.975. etik aurrera ezkerreko partiduak gobernurako atea irekia ikusten dute (Britania Haundia, Frantzia, Alemania, ...) edo gobernu lanetan laguntzeko aukera (Italia,...). Negoziazio industrialak eta eztabaida krisi sakonaren inguruan zentralizatzen saiatu ziren, aurrerako zabalpen garaiko dinamika lokalisten deszentralizazioa eta kontrol ezari aurre egin nahian.

Estatu espainolean berriz, UGT-CCOO eta ELAren interes ekonomiko, politiko eta bereziak ere bateratu egin ziren nolabaiteko estabilitate politikoa lortzearen ("salba dezagun demokrazia") eta sindikatoek erlazio industrialen sisteman leku berezia izan zezaten. Moncloa-ko paktoak izan ziren interes ezberdin horiek bateratzeko lehenengo saioak, eta ondorengoek ere (AMI, ANE, ...) horixe baieztatzen dute.

"Langileria ez bada ados ez patronalarekin ez gobernuarekin, baina ez bada nahi edo ezin bada patronala edo eta gobernu aldatu ... alda dezagun langileria!!! (B. Brech-en hitzetan esanez). Hau da, UGT-CCOO eta ELA transizioz geroztik patronalarekin eta gobernu guztiekin konzertazio estrategia mantentzen saiatu dira beti, eta ikusi dugu zernolako ondorioak ekarri dizkigun: alde batetik, lan baldintzen alorrean zutabe estruktural nagusienetakoak galdu dira: lanpostuen estabilitatea (egonkortasuna), lantegietan langileriaren boterea suntsitzea edo gutxitzea, eros ahalmena tikitzea, makina bat lanpostu galtzea,... eta hori dena Langileen Estatutoan, desenpleguaren legislazio berria, Pentsioen Erreforma, Pentsioen plan eta fondoak, zerbitzu publikoen pribatizazioan, LOLS-en, LORS-en, eta beste hainbat tokitan legeztaturik gelditu da. Transizioak hobetu du soziologian "ahots mekanismoak" deitzen dena, hau da, langileen partehartzeko moduak eta bideak onartu ditu instituzionalki, baina langileriaren eskubide soziolaboralak eta lan harremanen edukia txartu egin da.

UGT-CCOO eta ELA-ren diskurtsoa eta aktibitate sindikala berriro ere langilegoarengana zuzendua dago, honek legitimitatea eman diezaion beren eginkizun berria aurrera eramateko: Istituzionalizazio sindikala, ez krisian dauden botere politiko eta kapitalaren indarberritzea errazten duen pakto soziala

lortzeko, baizik eta krisiaren estabilizazioa areagotzeko. UGT-CCOO eta EIAk gauza bakarra egin dute orain arte: krisiak jotako infraestruktura industrialaren desegite prozesua posibilitatu ("Guk bete dugu" 14-Dko eslogana), kapitalaren indarra haundituz. Orain fase hau bukatzeaz dagoenean, ikusten dute jokatu behar duten papera, pakto sozialaren edukia, bestelakoa izan behar duela: gobernu eta indar politiko ezberdinekin batera gestionatzea krisiaren eboluzioan emango diren hurrengo faseen garapena. Beraiek zioten "beraiek ez" -esloganaren bigarren zatia- ez dute zuzentzen galdutakoa eskuratzeko asmoarekin, baizik eta "ahots" arlo gehiago lortzeko.

Benetan nahi dena, lan erlazioen sindikalizazioa da, UGT-CCOO eta ELA-ren beharra erakustea lan erlazio fase guztietan (kontratazioa, garapena eta itzaltzea), "ahots mekanismoak" indartuz eta lan erlazioen edukia eztabaidatu gabe utziz. Horrek enpresako komiteen deuseztapena suposatuko luke, eta UGT-CCOO eta ELA-ren istituzionalizazioa "lan indarraren administraziorako tekniko" bezala, eta ez gizarteko agente trasformatzaile bezala. Honen argibide garbia UGT-ko hainbat buruzagiek planteiatu duten beharrezko sindikalizazioa izango genuke.

Lehentasunezko Plataforma Sindikalarekin lortu nahi den bakarra zera da, sindikatu erreformisten aurpegia garbitu datozen hauteskunde sindikalei begiratzuz.

Estrategi berri hau martxan jartzerakoan indar ekonomikoaren interesak defendatzeko bidean doaz, zeren erlazio sindikalen deszentralizazioa bait dakar berarekin, enpresan oinarrituriko erlazioak areagotzen bait dira eta planteiatzen duen problemaren irtenbidea esparru horretan egitea bultzatzen bait da. Horixe da hain xuxen indar ekonomikoek nahi dutena.

Lehentasunezko Plataforma Sindikalaren edukia, beraz, gobernuak eta indar ekonomikoek nahi duten neurrian bakarrik garatuko da ("pensiones asistenciales" eta "programas de formación" etabar), batez ere lan erlazioaren sindikalizazio edo istituzionalizazioari dagozkion puntuetan, hala nola kontratazioaren babes sindikala, lan publikoaren segimendu-batzordeak, negoziazio kolektiboetan beren eskusartzea, organo kontsultiboan garapena eta egonkortasuna, "gatazka-greben autorregulazioa"ren ikuspuntu berezia, etabar.

Ardatz hau da gaurko dinamika sindikalaren muina. Baina ardatz eta muin honek ez dute nahitaz konzienteak izan behar, zeren ez litzateke erreala izango intenzionalitate mota hori suposatzea (eta azaleko kritika, erraza eta ezradikaleatik urrundu beharra dugu), dinamika sindikal hau beste era batera ulertu behar dugu, hots, sistemaren prozesu integratzailearen ondorio logiko bezala, alor juridiko-politikoan dauden problema larrien irtenbide eta gestioen kolaboraziopean sortu bait da. Hainbat azterketa eta erabaki pixkanaka pixkanaka baldintzatzen duen arisku integratzaile honetatik ez da inor libratzen, behin esparru juridiko-politikoaren bat onartu, barnerratu eta defendituz gero, "utopien" istituzionalizazioa edo "deskonposaketa" hasten da derrigorrez. Elkartasun handia, flexibleak eta itxiak ez diren abanguardiak bakarrik gaindi dezakete erabat historia, momentu bakoitzean dagoena, beti aurrerapausu, aldaketa sozialak bide berriak irekiz. ETA dugu adibiderik onena.

## **B- Mamiaren azterketa orokorra**

LPS osatzen duten puntuak denak ezagutuko dituzuelakoan gaude (txosten osoa pasata dago). Osatzen duten lau puntu orokorrak hauek dira: enplegua gehitzen eta hobetzea, babes sozial hobetzea, errentaren birbanatzea, eta, langileen partehartzeko eskubidea.

Argi dago honek ez duela esan nahi "neurri ekonomiko multzo" hori gobernuaren politika ekonomikoaren alternatiba izan daitekeenik, ezta patronala kolaborazio sindikalaren bidez lortzen joan den lan harremanak erabat edo zertxobait aldatuko direnik ere. Baina ez dute atzerapen bat suposatzen (ideologikoki despolitizazioa salbo), politika ekonomikoan aldaketa erreala "adierazi" nahi bait du; horretarako gobernu eta patronalen arteko negoziazioa eta kontzertazioa erabiliz, ekonomiaren goera "konpartitu" nahirik.

"Plataforma mobilizatzaile" klasikoa besterik ez da, baina hori alde batetik gizarte mailan sentsibilitate handia duten puntuak sartzen dituzte: langabezia, lanorduak gutxitzea, ordu estrak kentzea,...; bestetik ordea, alor sindikaleko istituzionalizazioa bilatu nahi duten puntuen atzetik

dabiltza: kontratatzerakoan laguntza publiko-legala, organo kontsultiboen osaketa eta indartzean parte hartzea,... Begi bistan dago langileria errekurso ekonomikoak bideratzeko nahia dagoela.

Garbi dago hor azaltzen dizkiguten zenbait puntu, itxura egiteko besterik ez direla (ordu estrak, lanorduak jeixtea,..) zeren egia esan, UGT-CCOO eta ELA-k ez bait lituzkete beren konbenioetan sartu eta lantegietan beteraziko, kontrako bidean aktiboki bait dute.

Beste puntu batzuk, hauteskundeetako ondorioak ikusirik eta gastu sozialari zuzendutako aurrekontuen murrizteak (LPS-ren II. eta III. blokeak) ezinezkoa izango zaie, administrazio publikoekin "negoziatzeko" ahalbidea ez bada horrenbesteraino iristen. Batez ere EEE-ren bidez, nola gobernu zentralak, hala autonomikoei kapital finantziari eta monopolistekin hartutako konpromezuak loturik bait daude. Zentzu honetan gehiago azaltzen da ponentzi honen 1.2. puntuan. Batzuk ez onargarriak bakarrik, eta edo "cartera"n daude edo martxan jarriak (vascongadetan gertatu den modura, iadanik zerbait laguntza zehaztuak zuzendu dizkiote kolektibo zehatzei).

Bukatzeko esan, beste puntu batzuk "partehartze sindikala" bultzatzen duten prozedimendu hutsa dira: kontratazioen babes sindikala, kontrol organuak "sindikatu partehartzearekin", ... eta LPS-ren IV. blokea orokorrean. "Langileen errepresentazio sindikala", edo beste edozein motatako errepresentazioa, adibidez: Komiteak eta delegatuak, alde batetik, "sindikatu potentziatio instituzionala ezaren" ondorioz onartuta dauden eskubideak iraupen mugatua dutela, bestetik, erabat eta nahiz azpitik identifikatu, ez da ba kasualitatea.

## 1.2.- TESTUINGURU EKONOMIKOA

Egungo arazo ekonomikoak, azkeneko neurri ekonomikoak sortu zituzten berberak dira: inflazioa, langabezia eta "balanza de pagos" delakoaren defizita. Estatu mailan langabezi formala 3 milioi lortzeraino iritxi zen, eta egun 1.976.ko kopurua hirukoiztu du, eta EEE-ko estatuen azkenekoa izaten jarraitzen du (%16.4. %9-aren aurrean). Orduan "balanza de pagos por cuenta corriente" deritzaionak 3.000 milioi dolarreko defizita bazegoen, urtearen azkeneko 10.000 milioitara igoko da. Ikusten argi gara nola inflazioa indarrez igotzen den, urtearen bukaerarako %7,1-era iritxiko dela pentsatzen da, eta ez da gehiago igotzen soldata errealak eta gastu sozialak sakrifikatu direlako. Ondoko datuek, eta beraien konparaketak bakarrik hitz egiten dute.

ADIGAI	1.976	1.989
Langabezia	700.000	2.500.000
Inflazioa	%20a	%7,4a
Balantzaren defizita	3.000	10.000 (milioi dolar)

Estatuan 1.975ean hasi zen krisisaren ondorioz, eta konpondugabeko arazo hoiei, beste bat erantsi beharra dago, "sozialistek" administrazio zentraletik, berdin egin dutelarik PNV-k vascongadetan eta UPN-k Nafarroan, eraman duten gestioarengatik: defizit publikoa, inork pentsa ez lezakoen estatu polizial bat eraikitzen ari direlako, eta noski diru kopuru izugarriak zuzentzen dizkiotelako gai honeri. Inperialismoaren eskuetara joan den sozialdemokrazi bat, OTANen sartzeko eta modu erailez ENAM-en aurka paktatu zuen sozialdemokrazia.

Batez ere ekonomi arloari helduz, 1.976.an zenbait indar progresistek (PCE, CCOO.. ea) indarrez esaten zuten ezinezkoa zela demokraziaren transizioa arrakastaz burutu. Baina Erreforma Politikoa (eta begi bistan dago) ez ditu konpondu, baizik eta areagotu ditu aurretik zeudenak. Ba hau gutxi ez balitz, hor dauzkagu nola gobernu zentrala hala autonomikoei, 1.990a aurrean jarritz, (urte horretan "Acta única europea"- deritzaion hori martxan jarriko delakoan) buru ta belarri zifra makroekonomikoak "normalizatu" eta "Europari begiratuz" parekatu nahirik.

Soltxagak helburutzat jo zuen inflazioa %3-aren ingurura jeixtea, baina gobernu zentrala eta autonomikoei hanka sartu dute, eta hori bai dela kezagarria.

Hanka sartu dute eta sartuko dute, monopolistek jartzen dituzten prezioak, monopolista ez direnak mantentzeko produktoek neurri berean igotzen ez dituzten bitartean, hau da, etekin marjenak kontrolatzen ez dituzten bitartean. Eta hau da inflazioaren irtenbide bakarra.

Hau da benetazko arazoa, PSOE, PNV eta UPN kapital multinazionalarekin, enpresarioekin eta orokorki teknokrata guztiekin bat egin dutenez, ez dute deus lortuko. Eta nola kapitalismoak berea duen etekin marjen zabala lortzea, ba, antolaketa eta berrantolaketa delata, Estatuko eta Hegoaldeko Langileri eta herri mugimenduaren kontra datorkigu. Laburtuz: etekinak mantendu nahi badituz, gastuak igo gabe, beharrezkoa zait nola soldatak hala gastuak jeixtea. Hauxe izango dugu 1.993an europarekiko parekatzearen ondorioa.

Ideologikoki honelaxe ari dira prestatzen lurra, lehen transizio politikoa traumarik gabe eginarren, eta orain, Europa sartuarren. Baina errudunak betikoak jarraitzen dugu izaten. Nola frankismoan, edo UCD-rekin, hala PSOE-PNV-UPN-rekin, zergati berdinak entzuten ditugu: "gure ahalmenetik pasa bizi gara", "Lekutik kanpo konsumitzen dugu"....

Beraiek diotenez: ekonomiaren hiltzailea aurkiturik; "konsumismoan leporaino" sarturiko gizarte batekin topatuz gero, gutienezko eta derrigorrez hartu behartako neurriak hauexek izango liriateke:

1.- Langileria eta herri mugimendua zigortzea... helburupean.

2.- Enpresarioak errespetatu beraiek etekinak igo ditzaten, nahiz eta bitartean...

3.- Giza gastu publikoak gutxituz eta kapitalaren gastuak moztuko dituen azpiegituraketen inbertsioarekin (joan etorriak,...) inizatiba pribatuari on egingen dio. Hori bai gastu militar antzu hoiek murriztu edo deuseztu gabe.

Martxan jarri ziren neurri monetarioen indargabetze eta hutseginen ondorioz, hartu behartako neurriak neurri fiskalak izango dira batez ere. Hau da, ahal den guztia egingen da zergak igotzeko, eta aurrekontu estatal eta autonomikoen bidez giza gastuen arloan gutxitzeko.

Hartzeko neurrien artean, eta hor buru diren guztiak ados daude (Boyer, Rubio, Fuentes Quintana,...) honelako batzuek egonena liriateke:

**A- Soldaten igoerari muga jartzea**, erosmen ahalmena murriztuz (Renten politikari dagokion neurria).

**B- Giza gastu publikoa murriztea**. Azken urteotako politika horixe izan da, laguntzarako gastuak murriztea.

**D- Herriaren gehiengoari zerga igotzea**. IRPF aldatzeko moduak begiratzen ari dira, eta diotenez, IVA %12-tik 14-era igo daiteke: biek kontsumoa gutxituko dute. IVA igotzen badute nahi ez den efektu bat egonen da: prozesu inflazionarioa azeleratu, prezioak igoz. (Guzti hau politika fiskalaren neurriak bezala).

**E- Kontsumorako kredituak garestitzea**: batez ere epeetan saltzeko kredituak (prestamoen baldintz eta interesak gogortzea).

Esaten ari garen guzti honen esanplu garbia Eroskik egindako ikerketan ikus dezakegu:

## **Antolaketa garestia: ia 207.000 pezeta urtean famili bakointzandako**

**Familia-tipoa:**

Urtean 20.000 kilometroei dagokion gasolina superraren gastua.

Hilan bi butano botilen gastua.

Miloi bat 5 urteetan ordaintzeko kotxe kreditoa.

10 miloitako etxebizitzarako kreditu bat 20 urteetan pagatzeko.

### **Neurri ekonomikoen eragin zuzena:**

Gasolinaren urteko igoera	12.800	pzta.
Etxeko butanoren urteko igoera	720	pzta.
* Kotxe-kreditoren urteko igoera	19.248	pzta.
* Etxebizitza-kreditoren urteko igoera	174.252	Pzta.

### **FAMILI TIPO HONENTZAKO IGOERA TOTALA 206.720 PZTA/URTEA.**

\* Honek bakarrik balio dio: kreditoen rebisio klausula daukatenei eta garestitzea erabaki zenetik kreditoa eskatu dutenei, Gobernuaren neurri interbentzionistaren ondotik.

Baita ere esaten zaigu "produktu totalaren tasaren igoera frenatu behar dela, egungo %5,5-etik %4-era, gure ahalmenetik pasatuak omen gaude ta". Gezur zikin bat besterik ez da, zeren eta makroekonomiaren zenbaki haundi hoiek hobetu litezke 2,5 miloi eta gehiago langabetuekin, honek ez baitu inolaz ere kuestionatzen kapitalaren tasa igoera, (hor ikusiko dute zer egiten ari diren honen aurka jokatu lezakeen langileriaren barruan erantzule diren ezker alderdi eta sindikatuek, CCOO-UGT-ELA, EE, IU, ea).

Gobernu zentralak eta autonomikoek (hemendik aurrera kontuan hartu PNV-ren laguntzari) neurri murrizgarri hoiek denborarekin ahaztuko direlakoan daude, 1.993 begiraturaz batez ere, ez dute giza erantzunik nahi eta horretarako azpiegituraketako inbertsio haundiak herriaren bizi baldintzak hobetuaren egiten direla esango digute. Baina egia beste bat da. Kapitala bakarrik bait da egoera honetatik irabazle aterako dena. Soka beti bezala estutzen da, baina modernidadeak "askatasun eta aurrerapen ekonomiko" bezala agertzen du.

## **2- EGOERA HONERI DAGOKION GURE JARRERA**

### **2.1.- LAB ETA INTERBENTZIO SOZIO-EKONOMIKOA.**

#### **A- Sarrera.**

EMAN-ek lideratzen duen Euskadi-Estatua enfrontamentuan sortu diren baldintza objetibo eta subjektibo berriak; izaera desberdinetako gertakari eta konfrontazioetara zuzendu da "krisis" ekonomikoaren bilakaera (berrestrukturaketan inguruko gatazka beste bideetatik eraman nahia); zenbait langile sektoreen "politizazio" sinplista eta ezezkorra EMAN-en aurka (PSOE-PNVren paktoaren ezaugarriak gero eta gehiago sartuaz lantegietan eragina izan dezaten)... eta gure interbentzioaren ikuspegi estrategikoa fokatzeko beharra barruan egonik, guzti horrek erakundearen barnean gure interbentzioaren berregokitzea heltzea eskatzen digute.

Kontestu honetan, orain dela bost urte Lesakan onartutako interbentzio linean ez genezake literalki mantentzen. Ez eta ere ez genezake "esperimentu" ilunak edota ardatzik gabeko bilakaeratan sartu. Baina, batetik egoera nolabait aldatu delako, eta bestetik erakundeak organizatiboki eman duen saltoak, gure interbentzioa birmoldatu eta momentura egokitzea beharrezkoa gaitu Euskal Langileriaren barruan gure eta ENAMaren eragina gehitzearen, hori bai gure ezaugarri organizatiboak eta produkzio sistemarekiko enfrontamendua mantenduz. Oreka hau lortzera eta mantentzera beharrezkoak gaude gutxienez 1.991an ospatuko dugun kongresuarekin. Erakunde bezala beharrezkoa daukagu kointura politiko-sozial, eta bunker "demokratiko" eta morroi ideologikoak jartzen dizkiguten pultsoei arrotz erantzun behar badiot, tinko egokitzea.

Une garrantzitsuak bizi ditugu, egestura eta militantzi osoak ikusten bait dugu edozein egestabida edo jarrera tinko eta zintzo barneratzeko beharra. Euskal Langileriaren interes objektiboen aurka doan sistema politikoaren bihotzean, benetazko aldaketa politiko eta soziala bilatzen duen erakunde baten barruan ez dute lekurik azaleko egestabidak, ixiltasunak, edota beste en eskuetan uztea beste egestabida eta erabaki dezaten.

## **B- Gure Interbentzioaren ezaugarriak.**

Gure interbentzio baliabideak, lan militante, borroka ideologikoaren metodoak, .. atzeratuak gelditzen ari zaizkigula argi dago -nahiz eta emeki emeki hobetzen joan- errealitatea gu baino arinago bait doa, eta beraz abiada berean jarri beharra daukagu.

88-ko Ekainan ospatutako Batasun Nazionala oso garrantzitsua izan zen, geroztik ospatutakoan bultzada handia eman zitzaionaldik aldaketa handi hau. Berrestrukturaketa prozesu guzti hori ez genezake pertsonen eta arduren aldaketari bakarrik mugatu, baizik, era batez ere lan alor eta hausnarketa berrietan sartzeko nahia eta beharra aurrean eduki behar ditugu, egunetik egunera gure interbentzio puntualak ideologikoki gorputz sendoago izan dezaten. UGT-CCOO-ek aurkeztu duten LPS-k berriro mahai gainean jartzen ditu borroka ideologiko eta erreindikatiboan aurreratzeko ditugun mugak. Baina hala ta guzti aurre eginen diegu hoiak bait dira EMAN-n eta gure erakundeak behar beharrezko dituen tresnak.

Egun ikusten dugu gure lan militantea bi bidetan eratzen dela, nahiz eta biek teorikoki lotu-lotuak egon, baina lantokietan eta orokorki gure interbentzioan abiada desberdina daramate. Alde batetik pedagogi gutxi erabiliz eta kanpaina modura diskurso "hiperpolitikoa" zabaltzen dugu, eta bestetik, arazo konkretuei erantzuna eman, tinkotasuna falta zaigularik batzutan. Hau da, askotan lantegietara arazo sektorialak eta orokorrak batera eramaten ditugu (presoek, burujabetasuna,...) eta honekin lortzen duguna da LAB-ek oso politikoaren imajena hartzea, langileek despolitizazio kanpaina horren barruan "rollo politikoak" bezala hartzen dituzte gure orriak, baina beste arazoa zera da, ez diogula denbora gehiegirik ematen langileen eragina izan dezagun nola, noiz eta zer egin behar dugun hausnartzeari. Eta gure eginbehartako bat dugu, langileria gogor eta negatiboki eragiten dioten neurri sozioekonomikoei erantzutea.

Nahiz eta erreformismo sindikalaren planteamenduak kritikatzin eta negatibizatzen jarraitu, egoerak Euskal Langileria objektiboki eta berehala dituen interesen aurrean alternatibak proiektatzea eskatzen digu; hori bai, kontuan hartu behar dugu ezin dugula gure alternatiba panazea modura jarri. Gure erakundeak sindikalismo erreformisten protagonismoa puskatu behar du horretarako beharrezkoa zaigularik interbentzio sozio-ekonomiko sendo bat, (berrestrukturaketa industrialaren garaien egin genuen bezala) eta gure diskurtso politiko orokorra indartuz egunoroko sindikalismoan legitimitate militantea lor dezagun bilatuz.

Kointura honetan konfrontazio soziala karakterizatzen duten egoeren aurrean, ezinbestekoa dugu, erakunde bezala, guztia aztertuz gero erantzuna ematea. Hori lortuaren aparatu guztiak batean lan egitera beharrezkoak gaude (Ekintza erreindikatiboa, Propaganda, Hezkuntza...) eta egestura guztietara igorri. Dena helburu bakar batekin, EMAN eta gure erakunde estratagi politikoaren eta kointuraren hildotik diskurso sozio-politikoa zehaztu dezagun. Ez dugu bakarrik erreformismo sindikalari edo gobernuei erantzutera mugatu behar, baizik eta isladatzeko jartzen dizkiguten sasiak gaindituz gero, gure proiektua gero eta gehiago hedatu beharra daukagu.

Euskal langilerian sinesgarritasuna lortu nahi badugu, errealitatearen abiadari jarraitu nahi badiogu, ezinbestekoa gure lan militante "gure txokotik" ateratzea eta lan integral bati ekitea. Aurretik aipatutako lanak eta erantzunkizunak estruktura eta militante konkretu batzuen eskuetan egonarren.

## **D- Sindikalismo erreformista, LPS eta LAB**

"Berrestrukturaketa / berkonbertsio" prozesuan ta erreforma politikoa indartuarren UGT-CCOO-ELA-ko zuzendaritzak hartu dituzten jarrerak influentzia galtzera eraman ditu. Orain berriro protagonismoa irabazi nahirik beraien diskurtsoa "radikalizatu" dute, EEE-n betidanik eman diren pausuei begiratuz.

Gobernu zentral eta autonomikoek, botere ekonomikoen gestore bezala, politika atzerakoa daramate, honek sensibilitate soziala eta sindikalismo erreibindikatioaren beharra gehitu egiten du. Sindikatuak instituzioetan partehartzeak lan eta bizi baldintzak hobetzea suposatu behar luke, baina ez sindikatuentzat, hori gertatuko balitz beraiek ere zapalkuntza sistemaren parte bihurtuko bailirateke.

Orain arte mantendu dituzten jarrerak sindikatu hoién zuzendaritzén kontraesanak, LPS-aren atzean dauden planteamendu laburtzaile eta erreformistak desmantelatzea, publikoki eta lantoki bakoitzean LPS-aren puntuetan konprometitzea,... LAB-ek guzti hau bide positibo batetik, erabili beharra dauka, gure jarrera eta abiabideak zehaztuz langileriak alternatibaren buru ikus gaitzan. Momentu egokia bizi dugu, langileria entzuteko prest bait dago.

Gure diskurtsoa desberdina denez, errez ulertzen da are gehiago langileri osoak bizi duen egoera larri honetan. Errez ulertzeak ez du esan nahi erreformismoan erortzen ari garela, gai guztiei aurre egiten saiatu behar gara.

## **2.2. HAUTABIDE OROKORRA GAURREGUNGO EGOERAREN AURREAN.**

### **A.- Sarrera.**

Orainarte azalduko ildoei jarrai, gure erakundea ezin daiteke gera bazterturik hala gobernu zentralak nola autonomoek eratuko dituzten ekonomi-neurri aurrikusgarriek eta PSP-k sorturiko itxarobide eta burrutatik.

Hutsunean jauzirik eman ez dezagun, mezua modu honetan era dezakegu: hots, klase-zatikari bakoitza jasaten ari den egoerei ematen dizkiegun erantzun zehatzetatik abiatuz eta oraingo eta gerokoaren arteko hari gidatzaile eta logikoaz hornituz. Honela, pedagogia erabiliz, euskal langileriak - eta beronen partaide garenez, geuk ere- praktikan ezagutu ahal izango dugu (eta ez bakarrik planfletoak irakurritz) LABen eta ENAMen proiektu ekonomiko-sozialaren arrazionaltasuna, berau burutzeko ahalbide erreala eta proiektu honetan, bizitzen ari garen egoerari erantzunbide den proposamena den aldetik, lerrokatzeko premia.

Aurreko ataletan egindako analisisetan oinarrituz, uste dugu LABen proiektu osoa hiru maila ezberdinetan planteiatu behar dela:

#### **a) Gaurregungo bornuan:**

Hobekuntza sozio-ekonomikoa gaur bertaroko lortzeko behar diren erreibindikazioak eta eskakizunak; baina ekidinez beti posibilismo erreformistan erortzeari. Ez da gure zeregina gehiago ala guttiago hobeturiko PSP-ren kopia alternatibo bat egitea; gure zeregina zera da: gaurregungo bornu politikoan lor daitezkeen eskakizun-mordo bat erreibindikatzeko, baina sindikalismo erreformistari kontraesan-mota guztiak sortezten saiatuz eta era berean geugana erakarrit sindikalismo erreformistaren orbitan sarturik ez dauden, baina gaurkoz behintzat gure burruka sozial eta politikoaren aurrean ere eskeptiko agertzen diren langile-sektoreak.

#### **b) Negozlaketa politikoaren bornuan:**

Konfidantza osoa daukagunez beste bornu juridiko-politiko baterantzako bilakaerari hasiera emango dion negoziaketa politikoaren prozesua etorriko dela, egitura-faktore mordo baten lehen zirriborroak egin eta diseinatu behar ditugu etorriko den testuinguru honetarako.

**c) KAS hautabidea behin garatu eta finkatu ondoren:**

Indar-koerlazio jakin baten funtzioan egongo den PROGRAMA SOZIO-EKONOMIKO estrategikoago bat gauzatuko litzateke (etorkizuneko denez, orain ezin dugu garatu, noski).

**B.- Gaurtik abordatu beharreko arloak.**

Aurrean esandako guztia argi daukagunez, goazen eskeman baino ez bada ere lehenengo bi arloak zehaztera; dena dela, honi buruzko eztabaidetan honako guzti hau garatu beharra daukagu:

**a) Gaurregungo bornuan:**

Ardatz hauek gobernu zentralari, autonomoei eta ugazaberiari eskatu behar zaizkie, kontutan izanik gaurregungo konpetentziak eta gaiak.

**\* Enplegua.-**

- Lanegunaren murrizketa. Hemen PSPren erizpidearekin bat etorritik, lanegunaren murrizketa aurrerakor bat erreibindika dezakegu, oraingoz asteko 37 orduetan kokatuko den laneguna, baina 35 ordukoa izateko xedeaz.

- Ordu extremen ezabatzea. Sartu nahi dizkiguten konzeptu berri horien kontra bururatu behar dugu; adibidez: "egitura-orduen" eta antzekoen kontra. Kasu bateko zein besteko orduak (labe-mantenua bera eta holakoak ere) lanorduez konpensatuko dira.

- Enplegu finko eta mugagabea ez den edozein kontratazio-eraren errefus biribila. Lanpostu iraunkorrari lan harreman mugagabea dagokio.

- Ordezkariek eta komiteek izan dezatela kontratazioen kontrola.

- Jubilazio-adina 60 urteraino jaistea, baina eskubide guztiekin.

**\* Babespen soziala:**

- P.G.A.(Profesioarteko Guttienezko Alokairua) baino Pentsio tikiagorik inola ere ez.

- Alokairu sozialerako eskubidea, guttienez P.G.A-rena; eta honekin batera Aseguru Sozialeko sanitate- eta botika-prestazioak, eta era berean zerbitzu sozialak.

- P.G.A.-a baino tikiagoa izango ez den subsidio mugagaberako eskubidea, lanpostu bat lortu ezin duten pertsona guztientzako

- Etxebizitza sozialen eraikuntza, euskal populazioari egokituriko etxebizitza duin batean bizi izateko, erabiltzeko eta gozatzeko oinarritzko eskubidea bermatzen delarik. Honek guzti hau darama bere baitan: promozio publikoko etxebizitza-programaketa batek egon behar duela, Hego Euskal Herriko ekonomi- eta gizarte-plangintzarekin zeharo loturik dagoena eta zolu-alorrean (espekulazioari galga), finantzaketan, berrabiltzean eta akuratzean esku hartuko duena.

- A.S.-ren sistema barruan dagoen estaldura osagarri publikoaren garapena eta potentziazioa.

- Kalitate hobea sanitate-zerbitzuan eta A.S.-ko zerbitzu-erregimenaren barruan sartzea psikiatri-, odontologi-, drogapetasun- eta famili plangintza-osabideak.

**\* Politika fiskala eta errenta-banaketa:**

Politika Fiskalaren inguruko edozein planteiamenduk bi alderdi hauek analisatu behar ditu: Nola lortuko diren sarrerak, eta aurrekontu-gastuen bidez gobernuak nola banatuko dituen sarrera horiek.

- Maula eta itzurerazpen fiskalaren kontrako burruka.
- Salbuespen- eta hobari-bilapen konplexuaren ikuskatze sakona.
- Zerga-tasen ikuskatzea. Gehiago daukanari gehiago grabatzen zaio.

\* **Lan harremanak.-**

- Europa mailako profesioarteko guttienezko alokairuaren finkapena.
- "Zerbitzu" militarren ordeiz eman behar den prestazioaren ezabapena.
- L.E.-ren erreforma.

\* **Eskubide Sindikalak.-**

- Enplegatu publikoek negoziaketa kolektiborako duten eskubide osoaren eskakizuna honako alor hauetan:

- . Enplegu publikoko eskaintza-planen laborazioa.
- . Lanpostuen sailkapena.
- . Sarrera-, hornikuntza- eta lanbide promozio-sistemak.
- . Administrazio langileriaren euskalduntzea ahal denik eta denborarik laburrenean eta epe finkoan zihurtatuko duen plangintza.

- Segurtasun eta higiene batzordeen eraketa eta funtzionamendua erregulatzen duten arauen derogazioa (1.971ekoak bait dira) eta lantegietan egiazko kompetentziak izanik organo parekide izango diren lan osasun-batzordeak martxan jartzea.

- Langileei ukitzen dieten erabaki guztietan Enpresa-Batzordeek duten parte hartzeko eskubidea.
- Teknologia berriak enpresetan sartzeko Enpresa-Batzordeek prozesuaren haseratik bertatik duten (analisisa, hautaketa, e.a.) eskubidearen aitortpena.
- Enpresa-Batzordeek ekonomi-, finantz- eta merkatal-informazio zehatz eta sasoiz emandakoa izateko duten eskubidea.

- Hauteskunde Sindikaletarako gaurregun dagoen arautegiaren derogazioa eta beste arautegi aurrerakoi baten laborazioa.

- Greba Legea non gutxieneko zerbitzuak beste gauza batzuren artean, eurekin zerikusia daukaten aldeek ezarriko dituzten, eta nola nahi ere, gaurregungoak bezain neurritz gainerkorik inola ere ez, halafede.

**b) Negoziaketa politiko berruan**

Negoziaketa politikoaren garaian, jakina, sakonduko diren eta Gobernu Zentralari, Gobernu Autonomoari eta ugazaberiari zuzenduta egongo diren egitura-faktore mordo baten zirriborroak egingo ditugu.

\* **Euskal ekonomi-ihardueraren plangintza.**

- Euskal sektore publikoaren sorketa.
- Estrategi-sektoreen plangintza (nekazaritza, arrantza, berezko baliabideak, energia, e.a.).
- Estatuarekin negoziatu moneta-, kreditu-, banku- eta ....-politikari dagokienetan.
- Euskal Banku Publikoa eratzeko kompetentziak.
- Iparraldearekin izan beharreko lotura ekonomiko- politikoak indartu.
- Herri Entitate eta Diputazioen kontrola.
- Enpresa tiki eta ertainak babestu.
- Euskal ekonomia jasaten ari den industri-eraiospenaren prozesuari galga eman.
- Industriaren bereizte-prozesua hasi.

\* **Hazienda**

- Zergak jartzeko eta arautzeko ahalmena duen tributu-erregimen propioa.
- Estatu Zentralarekin izango diren zerga-alorreko harremanak komenioaren bidez arautuko dira.

\* **Zerga-kargaren banaketa zuzen eta bidezkoa bermatuko duen errenta-politika.**

- Karga-tasen erreforma.
- Ezar-tipo "aurrerakorrakoak" potentziatu.

\* **Aseguru Soziala.**

Zerbitzu orokorraren ereduari iradokirik egongo den Euskal Aseguru Sozialak prestazio sozialak eta ekonomi- ordainsari nahikoa bermatuko dizkie langabetuei, lanerako ezinduei eta jubilaturik dauden guztiei.

Aseguru Sozialaren gestioa eta ekonomi-erregimena beronen kompetentzia izango dira; beraz, gaurregungo "Kutxa Bakarra" printzipioaren ezabapena eskatu behar dugu.

\* **Lan harremanak**

Hego Euskal Herriak LAN HARREMANEN BORNU AUTONOMO BEZALA eratu behar du, eta beraz, honako hauetarako ahalmena izango du:

- Lan-arauak legepean jartzeko.
- Lanari buruzko kompetentzia guztiak Instituzioen esku: Lan Ikuskapena e.a. ...
- Lan alorreko alderdi ezberdinak garatu eta betarazteko ahalmena.
- Langileen Estatutuaren derogazioa eta orobat indar koerlaziara egokitu gabe dauden beste lan- eskubideko arauena eta dauden edo-eta exigigarri diren lan-baldintzena.

### **2.3.- LAN PLANGINTZA**

Hasieran pausu izugarria bezala ikus genezake lan hau, baina gai guztien aurrean betidanik esan duguna idatzi eta zehaztu besterik ez da egin. Esan diren gauz askok ez dute organizatiboki inolako lan berezirik eskatzen, egunoroko lanean koiuntura kontuan hartzea besterik.

Ereibindikatibo mailari dagokiona aurreko, 2.2., puntuan agertzen da. Kontuan eduki behar dugu LPS hau ez dela beraien LPS-aren alternatiba, baizik eta lortu nahi dugun bakarra da honek sor lezakeen giza borrokan partehartzeko prestatzea gu gure linearekin sar gaztan.

## **A- Gure helburua: Borroka Ideologikoa**

Abenduaren 14-eko egoera berdinean aurkitzen gara oraingo honetan ere, hau da, gizartearen ezadostasuna aprobetxatuz -gobernuak bere politikarekin areagotzen duen- langileriaren desideologizazioan sakontzen ari dira. Gure borroka ba hortxen dago kokaturik, borroka ideologiko-politiko aurrera ateratzen dugun bitartean edo neurrian gure ekintza eta jarrerak zehaztuz joan gara.

Gogor sartu nahi dute langileriaren barruan, beste batzuen alternatibak estaliz (edo nahiz gutxienez) hemen gure helburuak lortzeko ez dugula zergatik marko juridiko-politiko aldatzea aldarrikatu beharrik UGT-CCOO-ELA-k helburu bakarra dute, sindikatuen instituzionalizazioa.

Eta Abenduaren 14-ean egin genuen moduan, berriro ere Euskal Langilerian sortu nahi duten "mugimendu hil" horri ekin beharko diogu. Ez genezake lo gelditu, ezta gutxiagorik ere, alderantziz, guk lortu behar dugu langileriak klase proiektu batean bere burua aurki dezan. Lehen esan dugun bezala, momentu egokiak dira gure mezu alternatiboa sar eta barnearazteko.

## **B- Gure Interbentzioaren ardatzak**

Bi ardatz nagusi gure interbentzio ideologikorako:

a) "**hitza hartu**". Hitza hartu behar zaie, ahal bada egoera larrian jarriz patronalaren aurrean, egoera zehaztetan irtenbideren bat harreraziz (ordu estrak, murgilpeko ekonomia....) eta UGT-CCOO eta ELA nekaraziz, komiteek beren protagonismoa eta antolaketa har dezaten. Hildo honetatik, konpromezu publikoak har erazi behar zaizkie lan zentro guztietan bere "plataforma" horrekin erlacionatutako gaiak edo puntuak negoziazio kolektiboan sartzeko (Kontratuen mugak eta aldaketak, lanorduen gutxitzea, langabetuen kontratazioa, entrepresako batzorde eta lan osasunerako konpetentzia baliagarriak,...)

b) Alde batetik gizarteak aurrean dauzkan eta nahiz egoera politiko soziala kuestionatu marko honetan konpon daitezkeen erreibindikazioak planteatu, eta bestetik berriz, marko juridiko-politiko kuestionatuz, eta argi utziaz hoi irtenbidea negoziazio politikoaren ondotik emanen dela. Hau da, planteamentu edo erreibindikazio gogorragoak.

Gure helbururik nagusia lan zentro guztietan ahalik eta kontraesan gehienak sortzea dela, eta ez trikimailu dialektikoetan edo komunikatu eta deklarazio gerretan erortzea. Gainera, hauteskunde sindikalak laster datozela eta, lan zentroetan gure betebeharra areagotu egin behar dugu, zeren kontestu honek asko errazten bait du.

## **D- Barruko eta kanpoko lana**

Bi maila zehaztu behar ditu:

1- **Barne funtzionamenduan** (lantokietako afiliatuen bilerak batez ere), gure betebeharrean pentsatu beharko genuke sakonki, lan zentro bakoitzean egoera ongi aztertu eskua nola sartu sindikalki eta bideratu, afiliatuen partehartzea gehitu, afiliatu gehiago sortu,... kontesto sindikalak dinamika eta helburu hauek errazten ditu, gizarteko deskontentua, -UGT-CCOO eta ELA-ren dinamika sindikalak areagotuko duena -eta gure barneprozésu hau martxan jartzen baditugu.

2- **Kanpora begira berriz**, lan zentro bakoitzean LAB-ek oraindik lotzeko dauden eskakizunak, eta kontraesanak zehaztetan oinarrituz, agitazio lan haundia du egin beharra. Toki hauetan atera genezakeen buiak (prentsa bidez,...), bozgorailu bezala izan behar du (agitazioarekin batera) gainerako gizarte guztientzat.

## **E- Ardura daukaten estrukturak**

**Eskualdeetako Idazkaritzak:** aipatutako egoerak eztabaidatzeko, lan zentro guztietan delegatu, afiliatu eta militanten asanbladak bultzatu. Batez ere langile aktiboek zuzendutako gatazketak, haienganako behar dugu, haiek bait dira LABen inguruan egon edo antola daitezkeen ia pertsona bakarrak, eta haiek bait dira guk aldarrikatzen dugun mezua eta edukia beste langile guztiei iritxi erazteko modurik egokienetakoa (gure praktikarekin zabaldu behar dugu, langile aktibo hauek egiten duten / dugun lanagatik jaten dutela /dugula denok). Ekintza sindikal guztiak komunikabideetan iritxi daitezkeen arduratuko da.

**Herrialdeetako Idazkaritzak:** Eskualdeek behar duten informazio edo argibide, laguntza, orientabide eta aholku guztiak eman, (datuak, estadistikak,...).

**Idazkaritza nazionala:** momentu edo unerik egokiena zein den zai egongo da, publikoki eskua sartzeko edo mobilizazio-possibilitateak ikusteko (dinamika "unitarioetan" parte hartu,....)

## **F- Faseak:**

1- **Prestakuntza:** deialdi serioa lan zentru bakoitzean eta barnedynamika sortu zentru bakoitzerako agitazio plan berezi bat eraiki dezagun.

2- **Agitazioa:** ardura duten egituren inizatibak eta zentru bakoitzeko plan bereziak burutu eta kaleratu.

3- **Lurraldeko mobilizazioak:** ahal dugun neurrian behintzat, kontzentrazioak, hitzaldiak, manifestazio eta beste hainbat gauza eskualdeka egiten saiatuko gara.

## **3.- 1.990RAKO NEGOZIAKETA KOLEKTIBOA**

### **3.1.- 1.989KO NEGOZIAKETA KOLEKTIBOAREN BALANTZEA.**

#### **A.- Testuingurua**

- . Itxarobide onak (Abenduak 14aren ostean)
- . Langilegoak, teoriarik behintzat, gorantzako joera; Gobernu-Ugazaberiak, ordea, beharrezakoa.
- . UGT-CCOO-ELAren arteko ekintza-batasuna. ELAk gutti errespetatu du batasun hau.
- . Gure plataforma eta Zentrale erreformistena antz handikoak dira; baina negoziatze orduan estrategia ezberdina erabiltzen dugu.

#### **B.- Alderdi positiboak**

- . Urte baterako sinaturiko komenioak, gehienak behintzat; Bizkaian izan ezik.
- . Laneguna 4 ordutik 16 ordura murriztu da; eta honen bidez azken urteetako dinamikaz apurto.
- . Lehenengo aldiz lortu dugu aurreko urteko K.P.G.(Kontsumo-Prezioaren Gehikuntza)-n oinarrituz negoziatzea. Geuk bakarrik eskatzen genuen zera.

#### **C.- Alderdi negatiboak**

. Ez dugu aurrerakuntzarik egin adibidez gizarte-hobekuntzak bezalako gaietan, edo ordainduriko lizentzia eta oporraldietan, segurtasun eta higieanean eta euskaran.

. Ez dugu adorez burrुकatu enpleguaren behin behinekotasunaren kontra.

## D.- Ondorioa

Gure eskuharmen-maila crokorrean hobetu dugun arren, eta baita hobekuntza batzuk lortu ere, gizarte-alorra izenaz ezagutzen diren puntuetan izan dugun utzikeriak zera egiten du: gure azken balorazioak mundu desideologizatu honetan NEGATIBOA izan behar duela derrigorrez.

**OHARRAK:** 1.- Probintzi-Komenioen batezbesteko igoera, hala 89rako sinatu direnetan nola berrikusten ari direnetan, honako hau da:

Arabak: % 6,84a

Bizkaian: % 7,13a

Gipuzkoan: % 7,4a

Nafarroan: % 6,97a

2.- Lanegunari dagokionez, ostera, honako hauek dira 89an sinaturiko komenioetako batezbesteko orduak:

Arabak: 1.810 ordu.

Bizkaian: 1.801 ordu.

Gipuzkoan: 1.796 ordu.

Nafarroan: 1.805 ordu.

3.- Ikusten denez, 1.800eko listoiaren gainetik dago lan egin behar den ordu-kopurua, Gipuzkoan izan ezik.

4.- Sektore publikoan, ordea, bataren eta bestearen batezbestekoak honako hauek dira: % 7,82a eta 1.676 ordu.

## 3.2.- P.S.P./ N.K.

Gure helburu nagusia honako hau da: UGT-CCOO-ELA jasaten ari diren kontraesanen garapena lantergietan sakontzea.

"Berbatik oratu" behar diegu eta ugazaberiaren aurka jokatzeko suposatzen duten egoera konkretuen konponketan berba daitezkeen saiatu. Jar dezagun adibide moduan ordu extremen arazoa. CCOO, UGT eta ELA teorian ordu extremen ezabapenaren alde daude; baina guk ondo dakigu zein den enpresetako errealitatea. Ordu extrak sartzen dituztenak publikoan salatu behar ditugu (panfleto, kartel e.a.-en bidez, herrian eta orobat prentsan eta irratan) Zentrale Erreformistak ere horretan berba daitezkeen saiatuz; eta beste erremediorik ez balego geuk bakarrik.

Gure mezuak argi eta garden iritsi behar du langilegoaren gana. Enpresa-Batzordeetako alferrikako eztabaidetan denborarik galdu gabe, langilearen beraren ganaino eroan behar ditugu gaiak eta eztabaidak, lanleku guztietara, asanbladak bultzatuz, sindikatuak publikoan berbatuz, euren "plataformekin" zerikusia duten arazoak Negozia eta Kolektiboan sartuz.

Horrela, "enplegu finakoaren sustaketari" buruz berba egiten dutenean, zera gogoraraziko diegu: ELA-UGTren akordioari esker, eta itxuraz azkenean CCOOenari esker ere, daudela OSAKIDETZAN gaurregun 3.500 behin behineko lanpostu.

Gaia langabetuen kontratazioarena denean, eskatuko diegu "Lan Publikoaren jarraipen-Batzordean" ugazaberiarekin eta Administrazioarekin izan dituzten sekretupeko bileren berri emateko; edo hobe, Bizkaiko Langabetuen Asanbladari eska diezaiokegu bere eritzia.

Lanegunari buruz ari garenean eta 35 ordu "europar" horietara iristeko asteko 37 orduak erreibindikatzen dituztenean, sektoreetako komenio ia guztiak aztertu beharko ditugu eta egiaztatuko dugu euretariko portzentaia oso handi batek 1.800 ordutik gora dituela eta zentrale erreformistek muga horiei buruz ezadostasunik erakutsi ere egin gabe sinaturiko komenioak direla.

Negoziaketa Kolektibo honetan ere, badugu, ukan, desgaste handi bat egiteko aukera; eta, bestalde, Hauteskunde Sindikalen hurbiltasunak zeharo baldintzaturik egongo da Negoziaketa Kolektibo hau.

Zentrale Erreformistek kontraesan nabarmen bat daukate eta horrexetan gehiago sakontzeko aprobe txatu behar dugu: alde batetik, P.S.P.k behartzen ditu lanleku guztietan ekintza-batasun osoa eramatera eta zer esanik ere ez Negoziaketa Kolektiboan, plataforma bateratuak, elkarrekin egindako mobilizapenak e.a. egitera beharturik daudelarik; eta beste alde batetik datorren urteko hauteskunde sindikalek nolabait eragotzi egiten die ideia-uztertze hori, zeren afiliazioari begira beraien arteko kontraktotasuna eta desmarkatzearen premia dute programak eta zerrendak egiterakoan.

### **3.3.- NEGOZIAZIO-BORNUA**

LABek Hego Euskadiko eremua defendatuko du negoziazio-bornu bezala. Sindikatuak, bada, probintzi-mailako komenioak negoziaketa-ahalmen guttitan duten sektoreen lan-baldintzen defentsa-elementu bezala erabiliko ditu.

Gehieneko eta Guttieneko Komenioak: Probintzi eta sektorekako komenioetan, normalean, guttieneko komenioa negoziatzera joko da, sektoreko edo/eta herrialdeko enpresek gaindi dezaketan komenio-motak negoziatzera, alegia.

Euskadiko bornua gainditzen duten komenioei buruz honako hauek bereizi beharko liriateke: Estatu osoko enpresa moduan agertzen diren horiek (Renfe, Gaitegi Nagusiak e.e.) eta sektoreak bezala ezagutzen direnak (Banka, Papera e.a.). Estatu osoko enpresen kasuan, eta bertan ordezkariarik izango bagenu, LABek negoziazio-bornu honetan ere egon beharko luke, nahiz eta Euskadiko bornuaren propaganda egiten eta berori behin eta berriz erreibindikatzen iharduteko izan; eta sektoreak bezala ezagutzen direnen kasuan honako helburu hauen funtzioan egon leiteke:

a) Lehentasuna duen lana zera izatea: hots, komenio hauek ukan beharreko negoziaketa-bornua Euskadi izan dadin lortzeko burruka.

b) Ahal denik eta gehien lortzea sektore bakoitzeko informazio makroekonomikoa.

c) Bermaturik egotea negoziazio horretan LAB jezartzeak ez duela zalantzan jarriko Euskadiko ezain negoziaketa-bornu, hala enpresa-mailakoa nola probintzi-mailakoa.

d) Ahalbideratzea gure ordezkariak ez dutela izango inolako desgaste sindikalik, eurentzako negoziaketa-bornu posible bakarra horixe denean izan ezik.

e) Eta LABek, kasu guztietan eta beti, lehentasuna eman beharko dio Sindikatu bezala koesionatuago bihurtuko gaituen negoziaketa-bornuari eta Euskadiko langileriaaren erreibindikazioen aldeko burrukan aurrerakada denari.

### **3.4.- 1.990RAKO PLATAFORMAREN ARDATZAK**

a) **Denborari dagokionez:** Urtebeteko iraupena; aurreko urteetako esperientziaren ondoren, igazko berreskurapena mantendu egin behar da atal honetan.

**b) Pertsonalari dagokionez:** Komenioak plantila osoa hartu behar du bere baitan. Efikazia mugatuko komenioei, ezetz biribila.

**c) Alokairuel dagokionez:** Kontutan izanik PFEZ-AS-ren gero eta zama astunagoa, KPG-ren estadistikaren fidagarritasunari buruz ditugun zalantzak eta langilearen bizi-maila hobetzeko filosofia basetzat harturik (eta, gainera, geuk sortzen dugun gainbalioaren hazkunde izugarrian oinarriturik), 1.989ko KPG-ren gainetik bi puntu gehi ekaineko berrikuspena erreibindikatu behar ditugu, linealtasunera jotzen duen alokairu-ordainsariaren eredia bultzatuz orokorrean.

**d) Lanegunari dagokionez:** Oraingo Negoziaketa Kolektiboko ardatz nagusi bat zerak izan behar du erreferentzia bezala behintzat: hots, asteko 37 orduak.

**e) Lanegutegiari dagokionez:** Alde bien adostasunaz egingo da lanegutegia.

**f) Ordu estreki dagokionez:** Guztiz ezabatu, berbatu gainerako sindikatuak, Enpresa-Batzordearen aldetiko kontrola.

**g) Kontratazioak:** Kontratazio finkorako erizpideak, Enpresa-Batzordearen aldetiko kontrol-neurriak.

**h) Pizkarriak:** Emankortasuna dela-eta jartzen diren pizgarri eta gehiak desagertzerako joera markatu behar da.

**i) Emankortasuna eta mugikortasuna:** Gogor burukatuko behar da produkzio-erritmoen gehikuntzaren kontra, plantila-malgutasunaren, balioanitzaren eta geografi- edo funtzio-mugikortasunaren kontra, zeren fase honetan hauek funtsezko garrantzia hartu bait dute, plantila-murrizketara begira sakon-sakonean dauden epe ertaineko eragiketekin zuzeneko lotura dutelako.

**j) Euskara:** AEK-ko matrikulaketa ordaintzen dutenak Enpresak izatearen alde egingo du komenioetan LABek, eta euskara iragarpen-tauletan, komunikatuetan e.a.-etan egon dadin; eta Enpresa-mailan hizkuntza bizia izan dadin burukatuko du; beraz, ikasteko erraztasunak erreibindikatu behar dira: hau da, lanegun-aldakuntzak, baimenak, lanegun-murrizketa e.a.

**k) Kotizazioak:** Indarreango legerian behatzen den estaldura osagarri publikoaren garapena eta martxan jartzea (A.S.-eko borondatezko hobekuntzak, oinarri-gehikuntzak eta kotizazio-motak).

**l) Pentsio-Fondoak:** Honi buruzko gure jarrera argia da: fondo hauek lantokietatik suztatzeari uko egin, baina non gauden jabetu ondoren hango egoera konkretura egokitu geure ukapen-jarrera.

## **II) Lan-osasuna:**

### **- Komiteak:**

- . Planteiatu S. eta H.-ko komiteburuak langileek edo euren ordezkariak hautaturikoak izatea.
- . Hilean 8 ordu izango dituzte euren lanak egiteko.
- . 50 langiletik beherako lantegietan langileek hautaturiko Segurtasun-zain bat egongo da.
- . Urtean behin guttienez, langile bakoitzak jasaten dituen arriskueta egokituriko azterketa sakon bat.

